

PEDRO YRIZAR

*Bilbo, egoitza, 2002-X-08, asteartea,
eguerdiko hamabietan.*

*Ricardo Badiola Uriarte,
argitalpen eragilea.*

Aurkeztuko diren liburukiak:

Egunon guzti-guztion:

I. *Morfología del verbo auxiliar bajo-navarro oriental: I, II, III*: Paratzaileak: P. Yrizar, Koldo Artola eta koordinaketa: Ricardo Badiola

II. *Memorias de un vascólogo*: Paratzaileak: P. Yrizar, Henrike Knörr eta Iñigo de Yrizar.

Egunon, euskaltzain oso, ohorezko, urgazle eta batzordeetako kideok. Egunon, Pedroren semeok eta erraina/hijos y nuera y demás familiares de Don Pedro de Yrizar. Egunon, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kideok. Egunon kazetariok eta beste lankide eta gonbidatuok.

Poztasun handiz aurkezten ditugu gure euskaltzain ohorezko den Pedro de Yrizar jaunaren azken lau liburukiok. Hor alboan dituzue orain arte *Morfologiaz...* kaleraturiko beste guztiak. Eta une honetan inprimategian dugu *Morfología del verbo auxiliar suletino* laster batez kalean izanen dena. Eta gero etorriko da *Index* orokorra edo *compendio* de los tomos publicados sobre la *morfología* del verbo vasco.

* * *

Buenos días a todos y a todas: académicos, familiares, periodistas y demás invitados e invitadas. Tenemos la gran alegría de presentar –aunque el autor no ha podido acudir por cuestiones obvias, 92 años–, pero tenemos representación de sus hijos, nuera y familiares y allegados a él.

* * *

Jarraian aurkezpenera joko dugu. Eta Aurkezpena hurrengo jaunok egingo dute:

1. Henrike Knörr, euskaltzainburuordea, euskaltzaindiko Onomastika baztordekidea eta *Memorias de un vasólogo* liburukiaren kudeatzaile-zuzentzailea. Henrike izan dugu Iñigo de Yrizarrekin batera *Memorias de un vasólogo* delakoa bultzatu, prestatu, taiutu eta kaleratu dutena RSBAP delakoekin batera.

2. Emilio Múgica, RSBAP-aren ordezkaria Bizkaian, Presidente de Bizkaia de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País/ Euskalabriaren adiskideen elkarte. Gracias por su colaboración en la edición del libro *Memorias de un vasólogo* de Don Pedro de Yrizar, académico de Honor de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia.

3. Iñigo Yrizar, Pedro Yrizar-en semea. Hijo de Don Pedro de Yrizar y colaborador-animador en la edición de *Memorias de un vasólogo* junto con Henrike Knörr, Vicepresidente de la Real Academia de la Lengua Vasca. Es preciso mencionar aquí los otros hijos de Don Pedro Yrizar: Pedro presente y la hija Helena que ha quedado en casa atendiendo al padre. Gracias a la ayuda de la familia y colaboradores ha visto luz esta digna publicación. Iñigo, usted tiene el honor de presentar una digna publicación de vuestro padre y nuestro académico de Honor, D. Pedro de Yrizar.

4. Koldo Artola, P. Yrizar-en kolaboratzailea. Aspaldiko urteotan Pedro Yrizar-en laguntzaile prestu eta ohargilea. Hainbat eta hainbat elkarrizketa egin eta transkribatu dituena. Azken hamabost urteotan Euskaltzaindiak argitaratu dituen *morfologiak...* sail honetako prestatzaile-kidea, orrazketak burutu dituena eta inprimategietan aritu izan dena. Koldo jauna, Pedro de Yrizar jaunaren izenean eskerrik asko.

5. Andres Urrutia, *Jagon* sailburua eta Euskalabriaren Adiskideen Elkar-terko kidea, Euskaltzain osoa eta Pedro de Yrizar-en mireslea. Zuk zeuk duzu aukera Pedro de Yrizar jaunaren azken liburukiok aurkezteko.

* * *

Guzti-guztiori eskerrik asko eta gure Pedro de Yrizar jaunari gure Goiko Jaunak urte luzez gure artean bizitzeko aukera eman diezaiola.

Eskerrik asko.

PEDRO DE YRIZAR JAUNAREN AZKEN BI LIBURUAK AURKEZTEAN

Bilbon, 2002ko uztailaren 10ean

Henrike Knörr

Pedro de Yrizarren bi liburu aurkezten ditugu gaur: alde batetik, *Morfología del verbo auxiliar suletino*, eta, bestetik, *Memorias de un vascólogo. Mis relaciones con lingüistas y colaboradores*. Sorta aberatsaren azken fruitua da lehena, hau da, euskalkieiei buruz –aditz laguntzaileez baliaturik– egileak bukatzearen lan bikain eta zehatzaren jarraipena. Nola ez eskaini bihotzez goresmen-hitzak, hain zama astuna hartu zuen gizonari, gure hizkuntza hobeki ezagutzeko bidea eman digunari!

Baina hemen zerbait esan nahi nuke, bereziki, bigarren liburuaz, oroitzapen-liburu honetaz. Atsegin handiarekin onartu nuen Euskal Herriko Erret Elkartearen eskaria, liburu atondu eta paratzeko. Bai bainekien beharrezko lana zela. Eta banekien, orobat, Iñigo Yrizar nuelarik lankide, zama arrunt arinagoa izango zela. Ordu asko eman ditugu jatorrizko testu hura zuzentzen, oharrez hornitzen, honi eta hari galdetzen. Baina pozik, gogozko aldapan ez baita nekerik.

Zalantzarik gabe, oroitzapen-liburu hau mugarri antzo geldituko da Euskal Herrian. Goi-mailako euskalariekin Yrizarrek izandako harremanetan euskalaritzaren zati handi bat dakusagu argi. Orrialde hauetan badugu euskalari horiek hobeki ezagutzeko aukera. Eta, oroz gain apika, denbora zailtan eta bestelako zeregin anitzen artean hemen ageri zaigu Yrizar, prestu, baikor, etengabe lanean.

Aurrerantzean, euskararen historian diharduenak edota interesa duenak oroitzapen-liburu hau ezin utzizko tresna eta argibide-iturri izango du. Gehiagorik esango nuke: euskal kulturaz arduratzen denak aurkituko du liburu honen lehenbiziko partean hazkurri franko.

Lokarri eta lokailu izan da Pedro de Yrizar adiskidea. Urquijoren inguruan edo babespean izan ziren euskalari batzuk ezagutu zituen, eta belauldi berriarekiko zubigintzan ez da gutxi Yrizarri zor zaiona.

Puntu bakar bat aipatuko nuke hemen, eta Mitxelenaren merezimendu bat da, hain zuzen ere. Konparatismoan zebilen Yrizar, langintza hori zuen mai-

teen. Eta, nabari denez, errenteriarak dialektologiaren esparrura ekarri zuen. Beste alor hartan Yrizarrek zer emango zigukeen ez dakigu. Baina euskalkiak aztertzean zer eman digun garbi dago, bere handian eta zabalean.

Agur eta ohore, bada, Pedro de Yrizar jaunari, eta zorian halaber liburu hau bideratu duen Elkarteari, eta bereziki Pablo Beltrán de Herediari, Madrilko ordezkariari.

* * *

Un servidor conocía una copia de un manuscrito interesante. El manuscrito era de Pedro de Yrizar. Tenía dos partes. En la primera se hablaba de sus relaciones con vascólogos y lingüistas de primera talla, como Urquijo, Uhlenbeck, Azkue, Tovar, Holmer, Mitxelena, etc. Y en la segunda se presentaba pormenorizadamente el trato con el cúmulo enorme de colaboradores que ha tenido en su gigantesca obra dialectológica, y donde hay que destacar la muy meritoria contribución del donostiarra Koldo Artola.

Ocurrió que la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, en junio de 2001, me invitó a decir unas palabras en el homenaje que rindió a Pedro de Yrizar, primer *Delegado en Corte* de esa institución después de la guerra civil. El acto tuvo lugar en la histórica Torre de los Lujanes, frente al Ayuntamiento, en la sede de la Sociedad Económica Matritense (nacida precisamente como eco de la Bascongada, al igual que decenas de Sociedades de toda España).

Encargado de hacer el elogio de Yrizar, en mi alocución mencioné, entre otras cosas, aquel interesante manuscrito del homenajeado.

Y felizmente la Bascongada aceptó mi sugerencia de que se publicara aquel manuscrito. Sugerencia y deseo que se han hecho realidad, después de meses empleados por Iñigo Yrizar, hijo del vascólogo, y por mí para revisar y anotar todo el original, plasmado en este libro, *Memorias de un vascólogo*, de más de cuatrocientas páginas, editado con el patrocinio del Gobierno Vasco.

Creo sinceramente que estamos ante una obra clave para la cultura vasca. Estas páginas serán leídas, apreciadas, consultadas, citadas. Encontramos en estas *Memorias* un aspecto científico muy grande. Hay, además, un aspecto histórico nada despreciable. Y hay, finalmente, un aspecto humano que nos arrastra desde las primeras líneas.

Pedro de Yrizar es un gran trabajador. Pero no olvidemos que su asombrosa labor vascológica, hasta el momento de la jubilación, fue hecha en ratos libres, robando tiempo al tiempo, y aprovechando cualquier ocasión.

Me precio de ser amigo de Yrizar y de su familia. He aprendido mucho en los libros y en la conversación con don Pedro. Y me gusta pensar una cosa. Me estrecha la mano. Esa mano fue estrechada por Urquijo y Azkue. Urqui-

jo y Azkue se dieron la mano con Fidel Fita, Schuchardt y Vinson. Éstos, a su vez, con Bonaparte y Duvoisin. Los cuales estrecharon la de Francisque Michel y Hiriart-Urruty. Éstos dieron la suya a Maurice Harriet. Éste dio la mano a Aizkibel y Humboldt. Humboldt se la dio a Mogel y Astarloa. Éstos se la dieron a Mendiburu y Kardaberaz. Y éstos a Larramendi. No seguiré adelante, pero ven ustedes que la cadena manual nos lleva muy lejos.

Sentido de la continuidad han reclamado muchos sabios, y entre nosotros mi paisano Odón Apraiz. Continuidad para que viva nuestra cultura y nuestra lengua. En paz, en concordia y en felicidad.

PEDRO DE YRIZAR: LA HUELLA DEL MAESTRO

*Andres Urrutia,
Jagon Sailburua.
Euskaltzaindia*

Eguerdion guztioi!

No es la primera vez que tengo la fortuna de participar en un homenaje a Pedro de Yrizar. Hace unos años la Asociación Mendebalde le tributó un homenaje cálido y merecido en Bilbao, homenaje que nos puso de relieve una vez más la excelencia humana e intelectual de Pedro de Yrizar.

Hoy, sin embargo, al ver aquí reunidas a dos instituciones en las que participo activamente, como son la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País y la Real Academia de la Lengua Vasca, no puedo sino sentir una gran alegría al compartir con amigos como Música, Celaya, Oleaga y otros, la satisfacción por la presentación de los libros de Yrizar.

Yrizar es para mí, como para muchos otros, un maestro. Un maestro en la distancia, alguien que en los primeros años setenta nos proporcionó los trabajos demográficos y lingüísticos que muchos devorábamos ansiosamente, preocupados por la supervivencia del euskara. Esa fue mi primera noticia de los afanes de Yrizar, cuando uno de aquellos párrocos, infatigables corresponsales de Yrizar, me regaló los trabajos que éste enviaba puntualmente a sus informantes.

* * *

Yrizar maisua dela esan dut. Maisua eta euskaltzaleen arteko zubia eta esteka. Maisutasun horretan ikusten dut nik harena, aurreko belaunaldiak (eredugarriak, besteak beste, On Julio de Urkijorekin harremanak zirela eta Yrizarrek idatzitako orrialdeak) oraingo aldietara ekarri eta guri berebiziko lekukotza emanaz. Hartara, *Memorias de un vascólogo* liburu ederra eta erakusgarria, euskalgintzaren historiarako urrats aberasgarria.

Maiz-sarri, Yrizarren lanak dialektologiaren esparru hutsetik ikusi ditugu. *Jagon* Sailburua naizen aldetik, zilegi bekit bestera jokatzea. Eskaini ere, Yri-

zarren egitekoak euskararen lekukotza eskaini digu urte luzeetan. Aditz hurrenkera ez ezik, hizkera bizi baten fede-emaile izan dira Yrizarren liburuak.

Alerik ale garatu dira liburuotan euskararen aditz-ezaugarriak. Euskalkiz euskalki joan da haren luma eta hala ekarri digu euskaltzale guztioi sekulako esku-erakutsia. Hortxe dira, besteak beste, gaurko *Morfologia del verbo auxiliar bajonavarro oriental I, II eta III*.

Ez etena, bai jarraia. Halakoxea da Yrizarren jokamoldea. Gurea, bistan da, hari lagundu eta harena bultzatzea da. Horretan ari gara eta horretan ari-tuko gara hurrengoan ere.

Mila esker.

**PRESENTACIÓN DEL LIBRO
MEMORIAS DE UN VASCÓLOGO
DE PEDRO DE YRIZAR**

*Sede de Euskaltzaindia,
Bilbao, 8 de octubre de 2002*

Iñigo de Yrizar

Señoras, señores:

Debo iniciar mi intervención en este acto, dando lectura en euskera a un breve mensaje que me ha encomendado mi padre. Dice así:

«Neretzat pozik handiena izango litzake zuekin batera gaur egotea zuei nire esker ona agertzeko, baina, egia esan, zoritxarrez ez naiz gauza horraino joateko. Dana dela zuentzat danontzat nere eskerrik beroenak bihotz-bihotzez!»

* * *

Mi aportación en este acto se va a referir a dos situaciones de la pequeña historia del libro de memorias de mi padre que hoy presentamos, de las que soy, con mis hermanos, testigo privilegiado. La primera se refiere a los larguísimos años de su tenaz y desinteresado trabajo en favor de la lengua vasca que recogen estas *Memorias de un vascólogo*, y la segunda, a la rigurosa tarea, compartida con Henrike Knörr, de su revisión y edición.

Debo remontarme a los últimos años de la década de 1940, en los que mi padre inicia la publicación de sus trabajos de lingüística vasca, arropado y empujado por D. Julio de Urquijo, incorporando así su talento y esfuerzo a los estudios que sobre el euskera se reiniciaban después de la última Guerra Civil española y de la posterior posguerra.

Recién terminada la guerra, mi padre, por necesidades de trabajo, tuvo que dejar con tristeza su tierra guipuzcoana y trasladarse a Gijón, donde se casó.

Pocos años después, establecida la familia en Madrid, la imagen que de niño conservo de mi padre es la de un hombre siempre «trabajando», «avaro del tiempo» como a él le gusta decir, rodeado de papeles y libros, con música de Beethoven en el tocadiscos y dedicado a cuestiones que yo intuía im-

portantes y me hacían pensar, en aquellos años infantiles: «mi padre lo sabe todo». Hoy puedo decir que lo sigo pensando con conocimiento de causa. Y así, con ocho o diez años presumí ante mis compañeros de colegio de que mi padre, además de francés, inglés, alemán o ruso y, naturalmente, castellano y vasco —como se decía entonces—, sabía las lenguas de los indios americanos. Ante la natural incredulidad de mis compañeros me vi obligado a aportar una prueba fehaciente de su erudición universal y para ello pedí a mi padre que me escribiera unas cuantas palabras en castellano y su correspondiente traducción a una de las lenguas amerindias, no sé si el algonquino, siuano o atapascano, que entonces estaba manejando en sus estudios comparativos sobre la lengua vasca (1), y que yo mostré satisfecho a mis razonablemente incrédulos amigos.

Posteriormente, en la década de los años sesenta se produjo un paréntesis en sus trabajos sobre el euskera, forzado por sus obligaciones profesionales en la Fábrica Nacional de la Moneda o en la Delegación de Hacienda de Madrid. También en aquellos años se cruzó una grave enfermedad de nuestra madre que condicionó la vida de la familia.

Estabilizada la situación, ya en la década de los setenta, decidió mi padre retomar sus trabajos sobre el euskera en los que apreciaba una carencia: el recuento de los vascohablantes en todos los territorios. Fue un empeño desmesurado, llevado a cabo individualmente para el que diseñó una encuesta que envió por carta a informantes cualificados: académicos, alcaldes o párrocos.

La respuesta fue extraordinaria y ello permitió que por primera vez en el siglo XX se dispusiera de datos contrastados y fehacientes del número de vascofonos, pueblo por pueblo, en todos los territorios vascohablantes (2).

Por cierto, que este trabajo dio lugar a una crítica del académico de la Real Academia Española, Gregorio Salvador, que, con pretendida agudeza, dijo que en su recuento de vascohablantes, Pedro de Yrizar «contaba hasta los niños de pecho». Con ello ignoraba que en los estudios demográficos generales se contabiliza toda la población y que en el caso de los estudios demolingüísticos quizás sean los niños «de pecho» los más «contabilizables» porque «mamando» la lengua materna la hacen posible y además al cabo de doce meses ya la están utilizando, aunque sea de manera balbuceante.

* * *

(1) 1950-51. «Sobre el carácter pasivo del verbo transitivo o del verbo de acción en el vasco y en algunas lenguas del Norte de América», *BRSVAP* 6, 1950, 3-42, 255-291 y 7, 1951, 123-176, 353-391.

(2) 1973. «Los dialectos y variedades de la lengua vasca. Estudio lingüístico-demográfico», *Boletín RSBAP*.

Concluido este importante estudio demolingüístico, una vez jubilado, ya en la década de los ochenta, dedicó todo su tiempo al estudio exhaustivo y sistemático del verbo auxiliar vasco en los diversos dialectos y variedades. Con ello respondía al reto que había lanzado el profesor noruego Hans Vogt que en una ocasión se lamentó de que para sus estudios tenía que recurrir a datos de hacía más de cien años y se extrañaba de que nadie hubiera continuado el señero trabajo del príncipe Luis Luciano Bonaparte que, como sabemos definió y delimitó los dialectos y variedades de la lengua vasca. Este reto se había convertido en urgente en el siglo XX pues estaba desapareciendo buena parte de la riqueza dialectal del euskera.

Una vez más nuestro padre, cumplidos ya los setenta años, se imponía un objetivo desmesurado, del que da cuenta en esta presentación Koldo Arto-la, colaborador insustituible y decisivo de la obra dialectológica de mi padre, por lo que le guarda gran afecto e impagable agradecimiento (3).

* * *

Pero no acaban aquí los trabajos efectuados por mi padre en estos años, sino que simultáneamente ha elaborado otros escritos, con la única pretensión de que quedaran en el ámbito familiar. Dos de ellos se referían a sus relaciones: uno, con los más ilustres lingüistas y vascólogos del siglo XX y otro, con el amplio número de sus colaboradores. Como modesta aportación, depositamos en su día, en la biblioteca de esta Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, Biblioteca Azkue, un ejemplar de estos dos escritos fotocopiados, por si en un futuro podían ser de interés a algún estudioso de la lengua vasca o de su historia.

* * *

Y es aquí donde se inicia la segunda situación personal a la que me refería al principio de esta intervención, porque Henrike Knörr, vicepresidente de esta Institución, conoció estos trabajos y aludió a ellos en una conferencia que pronunció, a modo de *laudatio*, en el homenaje que la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País ofreció a mi padre el día 21 de junio de 2001, en reconocimiento a su labor como primer Delegado en Corte de la Sociedad después de la Guerra Civil y por su contribución a la investigación del euskera. El actual Delegado en Corte, Pablo Beltrán de Heredia, que presidía aquel homenaje, al oír la alusión a estas obras inéditas, inmediatamente propuso su publicación. Desde ese momento el trabajo de preparar la edición, que he tenido el honor de compartir con Henrike Knörr, y en el que han colaborado mis hermanos, ha sido laborioso e intenso, pues, como he dicho, se par-tía de unos documentos no escritos para su publicación. Henrike Knörr plan-

(3) 1991 y 1999 publicados 13 tomos: *La morfología del verbo auxiliar* (nombre del dialecto)..., *Estudio dialectológico*, y en prensa el último, *el suletino* y un *Compendio*.

teó desde el principio que el libro merecía una cuidadísima edición, con documentación exhaustiva de cuantas menciones y citas se hacían en el texto, actualización de la ortografía de los topónimos y apellidos vascos según las normas de Euskaltzaindia, e incluso revisión de algunos aspectos estilísticos que sin duda han enriquecido y mejorado el aspecto definitivo de la obra. Ha sido un trabajo hecho con un elevadísimo criterio de autoexigencia, impuesto, tanto por el talante científico y riguroso del profesor Knörr, como por el cariño y admiración que tantas veces ha demostrado a la obra de mi padre. Por todo ello, y por la amistad que se ha fraguado en este trabajo conjunto, aprovecho para darle públicamente las más profundas gracias.

Para terminar –y mientras mi padre, que no cesa, continúa trabajando en una ambiciosa obra que titula: *Recuerdo nostálgico y sentimental de Azkoitia en el siglo XX*–, sólo me queda desearles que encuentren interesante el libro que hoy presentamos: *Memorias de un vascólogo*, que recoge aspectos muy variados de una larga y fructífera vida dedicada, en buena parte, al estudio de nuestro querido euskera.

Eskerrik asko/Muchas gracias.

MEMORIAS DE UN VASCÓLOGO, DE PEDRO DE YRIZAR

Bilbo, Plaza Barria, 2002-X-08

Emilio Múgica Encotegui,
Presidente en Bizkaia de Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte
/Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País

Gure Elkartearen Zuzendariak, nire bitartez, denok agurtzen zaituzte, bereziki, euskaltzainak eta P. de Yrizar sendiak. Pozgarria da etxe honetan liburu aurkezpen batean eta, aldi berean, Yrizar jaunari eskaintzen diogun gorazarrean esku hartzea. Ongi dakizue On Pedro euskaltzaina ohorezko dela, baita ere Euskalerrriaren Adiskideen Gorte Ordezkaritzako arduradun ohia. Elkarteak Ordezkaritza horren bitartez, hemen daukagun *Memorias de un vascólogo* argitaratu du. Ezin dut euskararen alde guk egin ditugun lanak gogoratzeko aukera alde batera utzi. Peñafiorida Kontea, Euskalerrriaren Adiskideen sortzailearen *Gabon sariak* eta *El borracho burlado* opera elebiduna ongi ezagunak dira. Horrez gain, Azkoitiko alkate legez, udal pape-retan dena gaztelaniaz ipintzearekin, jendeak ez zuela behar bezala ulertzen eta euskaraz jarduteko agindu zuen. Baina sarritan entzuten da Bergarako Mintegian ez zitziola garrantzi gehiegi ematen gure hizkuntzari. Ahaztu egi-ten dute hizkuntzen ikasketak han zuten eragina, lehenik gaztelania eta euskarak. Horren bitarteko hiztegi bat eratu zuten, eta han irakasle zan Samaniegoren *Alegiak* itzuli eta abizen bilduma bat, euren esanahiekin, argitaratu zuten. Euskara ez dela historikoki izan Elkarte barruan kultura egiteko funtsezko bide? Zoritxarrez hizkuntza idatziak, Hegoaldean behintzat, eremu murriztua eduki zuen zeregin horretan. Gugandik hurbilago, Mitxelena, Yrigaray, Arrue, San Martinek edo Pedro Yrizarrek berak, gure kideen artean, euskaraz eta euskararen gain idatzi dute *Boletín de la RSAP* aldizkari nagusizat daukagunean.

Amaitzeko, gogora ekarri behar da *Egan*, aldizkari horren gehigarria dela. Urte nahasi, zail, debeku eta susmoz betetakoetan, 1948an jaioa, lehenen elebiduna eta, 1953tik aurrera, dena euskaraz, agerpen honek euskal ekoizpenaren aintzindari bihurtu zen, elertian eduki duen eragina, ezta euskararen normaltasunari eman dion indarra, inork ez du eztabaidatzen. *Egan*-ek une honetan, 600 orrialdez gora argitaratzen ditu euskaraz gure etxeetan, urtero, eta bereak diren hamar bat gehigarri argitaratu ditu. Den-dena Elkartearen babespean.

Mila esker.

MEMORIAS DE UN VASCÓLOGO

Mis relaciones con
lingüistas y colaboradores

Pedro de Yrizar



Castalia Editorial Compañía S.L.

MADRID
2001

Transmite el saludo del Director de la Bascongada, en especial a los Académicos y a la familia Yrizar. Congratulándose de participar en una presentación de libros que sirven para homenajear a D. Pedro Yrizar, recuerda que, además de Académico de Honor, fue Delegado en Corte de los Amigos del País y que éstos han publicado *Memorias de un vascólogo* a través de esa Delegación. Repasa a continuación algunas aportaciones de su Sociedad al euskara, remontándose al fundador Conde de Peñafiorida quien, aparte de sus obras *Gabon sariac* y la ópera bilingüe *El borracho burlado*, tomó medidas a favor del idioma como alcalde de Azkoitia. Pero se oye con frecuencia que el Seminario de Bergara no le concedió adecuada importancia, frente a lo que argumenta con el impulso que se dio allí a la enseñanza de lenguas, en primer lugar, el castellano y el euskara, la preparación de un diccionario entre ambos, la traducción de las fábulas del profesor Samaniego y la publicación de un repertorio de apellidos con su significado. ¿Que el euskara no ha servido históricamente en la Bascongada como instrumento de cultura? Desgraciadamente su forma escrita, en el País Vasco Peninsular por lo menos, tuvo campo limitado en ese menester. Más cerca en el tiempo, cita las colaboraciones en y sobre el euskara de Luis Mitxelena, Aingeru Yrigaray, Arrue, San Martín y el mismo Pedro Yrizar aparecidas en el *Boletín de la RSBAP*.

Para acabar, explica la aparición del suplemento *Egan* de dicha revista en tiempos muy difíciles. Nacido en 1948 como bilingüe, se publica íntegramente en euskara a partir de 1953, destacando su función como pionero de la producción vasca y que nadie discute su impulso a la literatura y la normalización del idioma. Saca *Egan* en la actualidad por encima de 600 páginas en euskara al año y ha puesto en circulación unas doce monografías. Todo ello en el seno de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.

PEDRO DE YRIZAR:
MORFOLOGÍA DEL VERBO AUXILIAR BAJO-NAVARRO
ORIENTAL: I, II, III
Aurkezpena/Presentación

Bilbo, 2002ko urriaren 8a.

Koldo Artola

Egun on, jaun-andreok:

Gaurko egunean Euskaltzaindiaren Bilboko egoitza nagusi honetan Pedro de Yrizar jaunaren *Morfología del verbo auxiliar bajonavarro oriental* izenburuko lana aurkeztera gatoz.

D. Pedro, adinak dakarkion nekea dela-eta, Madrileko bere etxean hona ezin etorririk geratu bada ere, izpiritualki, gure artean beti bezain presente sentitzen dugula esatea egia osoa da. Haren familiartekoen presentzia ere nabarrena da, ezin baitzitekeen bestela, hauen artean, gertueneko senide gisa, Pedro Ramón eta Iñigo semeak eta honen emazte Amalia gure artean ditugula.

Ricardo Badiola elkarte honetako partaide eta lan honen argitalpenerako arduradunak izan du ni hona etortzeko ideia, zuei hitz batzuk zuzentzeko gomita egin didala.

Bat-batean badirudi, gauza hauetan eskarmenturik ez duen lagun batenzat, hau bezalako eginbeharrak konplikatu xamar izan behar duela, baina tira, ezin atzera egin, are gutxiago asko miresten eta maitatzen den lagun bati buruz hitz batzuk esateko inori aukera ematen zaionean.


Baina horretarako ere, agian, haren eta nire arteko harremana noiz eta nola hasi zen adierazteko hitz batzuk esan beharko nituzke. Entzuleak barkatuko ahal dit, zalantzarik gabeko protagonista D. Pedro izatean, zenbait alditan eta niri dagokidanez singularreko lehen pertsona erabili beharra.

D. Pedrorerako nire harremana 1983. urteko martxoan hasi zen, hari bidali nion gutun baten bidez, hori baino lehenxeago hark idatzi eta argitara emaniko *Contribución a la dialectología de la lengua vasca* gogotik ikusi eta gero, nahiz harexen bestelako lan batzuk ere lehendik ezagutzen nituen.

Izan ere, poz handia eman zidan *Fontes Linguae Vasconum* argitalpen entzutetsuak argitara eman zidan artikulu bateko zenbait datu haren lanerako baliatu izana, lan apal hura –egin ditudanetan aurrenekoa– *amateur* baten lana izan arren.

Gutun hartan nire burua aurkezteaz gainera, euskara desagertzeaz zegoen Nafarroako bi ibarretan bildu datu batzuk bidali nizkion, poztuko zelakoan, eta baita neure burua eskaini, hark nahi izanez gero beste zenbait lekutan ere datuak biltzeko.

Telefono-hotsak eman zidan, aurrenekoz, haren bozaren berri. Oso esker onekoa agertu zen nire ustegabeko eskaintzaren aurrean eta baita baiezko bo-robila eman ere, handik lasterrera idatziko zidala aginduz.



Handik egun gutxitara, zer ez nuen etxean errebitu? xingola gorri zabal batez inguratu eta loturiko material ugari-ugaria; Bonaparteren denboraz geroztik, batez ere, hainbat ikerlarik bilduriko era askotako datuak, hainbat lanen kopiak... eta, neuk eskaini kolaborazioari begira, noski, garrantzitsuenak: egin beharreko inkesten orriak; batzuk beteta, eredu gisa, eta beste batzuk zuritan.

Lehen aipatu *Contribución a la dialectología* lanari erreparaturik ohartu nintzen D. Pedrok bizkaierazko eta gipuzkerazko datu ugariagoak eta osoagoak zituela gainerako euskalkietakoak baino. Hau honela, Nafarroan saiatu nintzen gehien hasiera batean, hori horrela izateko zioa nire emaztea eta beronen familia osoa Iruñekoak izatearekin loturik dagoela, denbora hartan, gure hiru seme-alabekin, aitatxi-amatxirengana, hiri hartara maiz joaten ginenez.

Gerokoa errazki asma daiteke; behin lanean hasiz gero, eta gogotik arituz gero, herri jakin batean eginiko inkestaren emaitzak inguruko beste herri batekoa eskatzen du maiz, ustez beste euskalki, beste azpieuskalki edota bariatatekoa dela edo izan daitekeela, edota, askotan, haien arteko balizko mugak non egon daitezkeen jakiten saiatzeko; saiatzeko, bai, askotan ez baita erraz izaten mugak finkatzea D. Pedrok berak ongi asko dakien moduan, saiatu, saiatzen den arren.

* * *

Eta nire D. Pedrorekiko harremanaren hasieraz hitz batzuk esan ondoren bidezkoa da, hauxe batez ere, hemen aurkezten den lanaz hitz pare bat esatea.

Lana hiru liburukitan eman da argitara, kontuan hartu behar baita euskalki hau aski hedaturik dagoela, Baiona ondoko hiriburutik hasi, *Aturri* ibaia-
ren ondoan beraz, eta alde honetako Nafarroako *Zaraitzu* ibarreraino, hain justu, beti ere Bonapartek egin zuen sailkapenaren arabera, hau izan baita Yrizarrek –salbuespen ttikiren bat gora-behera– zintzo-zintzo jarraitu duena.

D. Pedro, Ekialdeko euskalkiez mintzo denean, behin baino gehiagotan zuzendu zaio bai berak bai René Lafon ikertzaile ospetsuak duela jada mende erdi bat –mende erdi bat!– inkestak egiteko komenigarritzat jotzen zituzten herrien aukeraketa egokiari. D. Pedrok 15 inkesta-puntu proposatu zituen eta M. Renék 16.

Urteak joan dira, errepideak eta lekuetara iritsi ahal izateko moduak izugarriri erraztu dira. Gaurko lan-taldeak biziro saiatu dira eta emaitza hor dago: 45 inkesta oso, bestelako datu gehigarriak albo batera utzita.

Honen ondoren, gainera, eta lanari buru emateko, Zubererari eskainiriko liburua etorriko da, une honetan inprimategian, azken ukituak emateko, aurkitzen dena. Denbora laburrean, beraz, kalean egotea itxaroten dugu.

* * *

«¿Ya te dará tiempo?» esan omen zion anaia Luisek duela jada urte asko samar gure Pedro maiteari, hau, artean 75 urte inguruan zela –eta bizi zen lekuan bizi zela, erantsiko nuke nik– hau bezalako abentura sakonean ausardia handiz murgildu eta lanari buru-belarri eusteko hautua egin zuela ikusirik. Anaiaren burutazio xelebrea D. Pedrok berak ezagutarazi zidan aspaldisko Azkoitiko bere etxean, ikustaldi bat egitera eta, bide batez, lanen gora-beheretaz mintzatzera joan nintzaion udako arratsalde eder batez.

Zerua izan bide du lagun bere erronka arriskutsuan –D. Pedroren konstante bat izan da, orain arteko liburuen aurkezpenetan, «Jainkoak osasuna ematen badit» esapidea–, aldian aldiko laguntzaileekiko erabateko esker ona agertzeaz gainera, hau baita hau bezalako aurkezpenetan mintzatzeko hasi eta, ahoa ireki bezain laster egin duena.

D. Pedroz hitzegiterakoan batek ez daki nondik hasi. Oso kultura zabaleko pertsona izan arren zinez apal eta gozoa da, hurbil eta jatorra zentzurik zabalenean. Inori leziorik eman gabe beti entzuteko prest eta esaten zaiona gogotik hartzen dakiena, esalearen edo mementuko informatzailearen balizko maila apala gutxietsi gabe, alderantziz baizik. Haren laguntzaile eta adiskide izateko zorion eta ohorea izan dugunontzat benetan eredugarria.

* * *

Familia gizona da, orobat, D. Pedro, eta esan beharrik ere ez norainokoa. Alargundu zenez geroztik, duela hogeitau urte inguru, eta behin jubilazioa hartuta, lan hauetara eskaini dio bere indarrak handiena, Pedro Ramón, María Elena eta Iñigo eta Amalia seme-alabek, etxeko zerbitzari leial Gillermina andrearekin batera, zahartzaroko denbora, lanari eskainiriko denbora oparora zalantzarik gabe, maitekiro gozatu diotela. Haatik izan du denborarik bestetarako: gaztetan ikasi bai baina, denbora faltagatik luzaz bazterturik izandako pianoa berriz ere jotzen hasteko, hainbat musikarirekin izaniko harremanez «etxetik ibiltzeko modukoa» omen den lan polit bezain gogoangarri bat idazteko, eta baita, orobat, hemen berean geroxeago aurkeztuko den *Memorias de un vascólogo* izeneko lan interesgarria idazteko ere. Eta jakin ere badakigu geldirik ez dagoena, bere abizenaren genealogiaren arbolari buruz ere zerbait idazten ari baita, hark berak duela jada denbora pixka bat aditzera eman zuezez. Gizon aparta, zinez, gurea!

* * *

Eta bukatzeko, hemen bildu garenon sentimendua biltzen dudan ustez, eskerrik beroenak eman nahi dizkiot D. Pedrori –eman nahi dizkiogu, beraz–, euskalgintzari oro har, aditzaren morfologiaren alorrean bereziki, egin dion ekarpen ikaragarriagatik, eginahal horretan guri guztioi erakutsitako adore eta kemen neurri gabekoagatik eta harreman pertsonalean ere erakutsi hurbiltasun eta gozotasun ezin handiagotatik. Gure artean oraindik ere ahalik denbora luzean izan dezagun desira helarazten diogu bihotz-bihotzez, senitartekoen eta gu guztion maitasuna lagun duela.

PEDRO DE YRIZAR

Bilbao, 8 de octubre de 2002

Koldo Artola

Señoras y señores:

Presentamos hoy en esta sede principal de Euskaltzaindia el trabajo de D. Pedro de Yrizar *Morfología del verbo auxiliar bajo-navarro oriental*.

Aunque D. Pedro, debido a dificultades derivadas de su avanzada edad, no se ha desplazado hasta aquí para tomar parte en la presentación de dicho trabajo, es evidente que, espiritualmente, lo tenemos entre nosotros. La presencia de sus familiares es además notoria, como no podía ser menos, encontrándose entre nosotros, como miembros más allegados, sus hijos Pedro Ramón e Iñigo, acompañado éste de su esposa Amalia.

Ricardo Badiola, miembro de esta Institución y encargado de la publicación que presentamos me ha cursado una invitación, como colaborador de D. Pedro, para hacer una especie de presentación, dirigiéndoles unas palabras.

Un encargo así, hecho de forma inesperada y cuando uno no tiene experiencia en estas labores, puede resultar algo complicado, pero, en fin, uno no puede negarse y menos cuando lo que se le ofrece es la posibilidad de pronunciar unas palabras referentes a una persona a quien se admira y estima.

Para ello, sin embargo, tal vez deba decir cuándo y cómo comenzó nuestra mutua relación. El auditorio sabrá perdonarme que, siendo D. Pedro el protagonista incontestable de este trabajo, haya yo de hablar, en ocasiones, en primera persona de singular.

* * *

Mi relación con D. Pedro empezó en marzo de 1983 mediante carta que le envié tras haber leído su trabajo *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, a pesar de conocer para entonces otros interesantes trabajos suyos publicados con anterioridad.

A decir verdad, me dió mucha alegría el haberse él valido de algunos datos contenidos en un artículo –el primero de los que he escrito– publicado por

la prestigiosa revista *Fontes Linguae Vasconum*, a pesar de tratarse del trabajo de un aficionado sin mayor experiencia.

En aquella carta, además de presentarme, le envié algunos datos recogidos en dos valles de Navarra en los que el euskara agonizaba, suponiendo que le agradaría, como así fue, y ofreciéndome de paso para, caso de estimarlo conveniente, recoger datos en otros lugares.

Un golpe de teléfono me dio a conocer su voz por vez primera. Se mostró muy agradecido por mi oferta de colaboración, dando a la misma su sí más rotundo y prometiendo que, en breve, me escribiría.

En efecto; a los pocos días recibí un cargamento de papeles, envueltos y atados todos ellos con una cinta ancha de color rojo. Materiales a partir, sobre todo, de Bonaparte, entre los que se encontraban datos muy diversos recogidos por distintos investigadores, copias de tantos y tantos trabajos... y, claro está, por lo que se refiere a la colaboración propuesta, hojas de cuestionarios para realizar encuestas, rellenas las unas a manera de modelo, y en blanco las otras.

* * *

Leyendo la antes mencionada *Contribución a la dialectología* me había dado cuenta que los datos de que disponía D. Pedro en vizcaino y guipuzcoano eran, con diferencia, más abundantes que los relacionados con otros dialectos. Así las cosas me esforcé, al menos en un principio, a recoger datos en Navarra, siendo clave para ello el que, al ser mi esposa y toda su familia de Pamplona, solíamos ir en aquel entonces muy a menudo a dicha ciudad, en compañía de nuestros tres hijos, a casa de los abuelos.

Lo siguiente es fácil de suponer; una vez empezar a trabajar y dando por supuesto que uno se encuentra a gusto, los resultados de una encuesta empujan, frecuentemente, a hacer otra en algún lugar más o menos próximo, pensando que los resultados de ésta puedan tener relación con otro dialecto, subdialecto o variedad, o bien para tratar de establecer los posibles límites entre unos y otros. Y digo tratar de establecer pues muchas veces ello no resulta nada fácil como el mismo D. Pedro sabe, a pesar de que, intentarlo, se intenta.

Y tras estas palabras relacionadas con el comienzo de mi relación con D. Pedro, justo es que haga, sobre todo, unas observaciones acerca del trabajo que ahora se presenta.

* * *

Este trabajo sale a la luz mediante la publicación de tres tomos. Puede parecer mucho pero hay que tener en cuenta que el dialecto que nos ocupa, el *bajo-navarro oriental*, abarca un área muy amplia, pues se extiende —siempre siguiendo la clasificación de Bonaparte, de la que Yrizar, salvo rarísima ex-

cepción, es fiel continuador— desde *Saint-Pierre d'Irube*, junto al río *Adour*, en las puertas de Bayona, hasta el *valle de Salazar*, en Navarra.

Yrizar se ha referido más de una vez en sus trabajos a sendas listas que tanto él como el famoso profesor M. René Lafon prepararon, cada uno por su lado, como puntos estratégicos interesantes a tener en cuenta a la hora de realizar posibles encuestas. En la lista de D. Pedro aparecen 15 pueblos; en la de M. René 16. Esto ocurrió a raíz de una reunión mantenida en Madrid en 1951; ha pasado, por tanto, desde entonces, nada menos que medio siglo.

Se ve, pues, que el proyecto estuvo parado durante bastante tiempo, al parecer por falta de medios. Actualmente, sin embargo, los diversos viales y las modernas carreteras han facilitado enormemente el acercamiento a lugares que entonces parecían lejanos o de complicado acceso. Los grupos de trabajo se han puesto en acción y el fruto está ahí: 45 encuestas completas, además de otros datos complementarios de interés.

Tras este trabajo y para dar fin al conjunto del mismo, vendrá además el tomo dedicado al dialecto *suletino*, actualmente en imprenta para revisar las últimas pruebas. Esperamos, pues, verlo muy pronto publicado.

* * *

«¿Ya te dará tiempo?» preguntó una vez a nuestro querido D. Pedro su hermano Luis, hace ya bastantes años, estando aquél aproximadamente en los 75 —y habida cuenta de dónde vivía, añadiría yo—, cuando tuvo la enorme osadía de zambullirse en semejante aventura y optó por, como suele decirse, «liarse la manta a la cabeza». Esta ocurrencia de su hermano me la refirió D. Pedro hace ya bastantes años en su casa de Azkoitia, en una tarde de verano en que fui a visitarle y a cambiar impresiones sobre la marcha de los trabajos.

Sin duda ha tenido al cielo de su parte en ese su arriesgado reto —en distintas presentaciones de anteriores libros ha sido una constante de D. Pedro la expresión «si Dios me da salud»—, además de mostrarse siempre muy agradecido a sus ocasionales colaboradores, cosa que ha hecho siempre tan pronto como ha tomado la palabra.

* * *

Al hablar de D. Pedro uno no sabe por dónde empezar. A pesar de ser persona de gran cultura, es enteramente humilde y amable, cercano y castizo en el sentido más amplio. Persona que, sin meterse a dar lecciones a nadie, siempre se muestra dispuesta a escuchar y atiende de muy buen grado lo que, humildemente también, se le sugiere o propone, sin reparar en el a veces modesto nivel de su interlocutor. Sencillamente modélico para quienes hemos tenido el honor y la felicidad de ser sus colaboradores y amigos.

Pero además D. Pedro es hombre de familia, y no hace falta decir hasta qué punto. Tras haber enviudado, hace cosa de veinte años, y una vez estrenada la jubilación, ha entregado sus mayores esfuerzos al logro de esta tarea, siendo sus hijos Pedro Ramón, María Elena, Iñigo y Amalia, junto a Guillermina, fiel y amable doméstica, quienes constantemente le han animado, ayudado y apoyado cariñosamente en sus, especialmente para la dialectología vasca, rentabilísimas labores. Pero además saca también tiempo para otros quehaceres: para tocar el piano, cosa que, por falta de tiempo, no hacía desde su juventud; para escribir sobre sus relaciones con músicos y lingüistas –por cierto que un trabajo sobre estos últimos titulado *Memorias de un vascólogo* se va a presentar en esta misma sala a continuación de este acto–; y sabemos también que anda preparando un nuevo trabajo relacionado con el árbol genealógico de su apellido. ¡Hombre de dinamismo y actividad enormes, el nuestro!

* * *

Y para terminar, creyendo recoger el sentimiento de los aquí presentes, quiero, queremos expresar a D. Pedro nuestro más expresivo agradecimiento por la enorme aportación ofrecida a la euskarología en su conjunto y muy especialmente en el campo de la *morfología del verbo*, así como por habernos dado a todos ejemplo de entrega y coraje sin límites, además de mostrarnos en el trato personal una cercanía y una amabilidad extraordinarias, fruto todo ello de su gran humanidad. Le deseamos de corazón permanezca todavía entre nosotros por un tiempo que, además de fecundo, sea duradero, rodeado como está del cariño de todos los suyos, que también somos nosotros.